

Kerry Way

Irlandako lurretan barrena



Idatzia eta argazkiak
Xabier Erauskin Iurruta (*)

■ Acoose lakua eta atzean Dingle penintsulako mendiak



El camino de Kerry

SITUADO en el suroeste de Irlanda, se esconde el paraíso verde de Kerry. El camino que lleva el mismo nombre es la ruta de senderismo más larga y más antigua de Irlanda. Dicho sendero pasa por remotos valles y zonas costeras a través de la Irlanda profunda. Esta ruta que comienza y termina en Killarney nos lleva por bosques, valles y caminos de la costa. El tramo que atraviesa el Parque Nacional de Killarney está formado por senderos en buen estado, bien señalizados, pasaderas, puentes, etc. Más allá de los límites del Parque Nacional, los senderos se convierten en rutas de paso del ganado, antiguas carreteras y pistas forestales. El recorrido es de pequeños desniveles aunque alguna de las etapas puede resultar algo larga.

(*) Xabier Erauskin Iurruta (Lasarte-Oria – 1966). Informatikaria lanbidez. Lasarte-Oriako Batasuna mendi elkartearekin egin zituen Pirinioetarako lehen irteerak eta ordutik mantentzen du mendizaletasuna. Argazki kamara soinean duela Euskal Herriko eta Pirinioetako mendietan ibili ohi da, oinez, eskiekin edo erraketekin. Alpeetara ere joan izan da zeharkaldiak egitera eta horretaz gain lau mila metroko mendi batzuk ere igo ditu (Breithorn, Castor, Polux, Lyskam...). Urrutiagoko lurraldeetako mendiak ere bisitatu ditu Perun eta Islandian, baina gogokoenetakoa Aconcaguara igo zeneko espedizioa du.

KERRY konderrria (gaelikoz *Chiarrai*) Irlandako hego mendebaldean dago, Ozeano Atlantikoaren ertzean. Irlako eskualde menditsuenetakoa da eta bertan kokatzen da, besteak beste, Irlandako altuena den *Carrauntoohil* mendia (1038 m). Iveragh penintsulan *Kerry Way* (gaelikoz *Slí Uíbh Ráthaigh* edo *Iveragh bidea*) izeneko zeharkaldiak mendialdea eta kostako lurraldeak elkartzen ditu mendiko bide, gurdibide zahar eta asfaltozko bideetan barrena guztira 210 kilometro inguruko ibilbide bat osatuz. Haizea nagusiki hego

mendebaldekoa izatean, Atlantikotik sartzen da zuzenean eta hain ingurune menditsuarekin topo egitean, *Kerry* irlako eskualde euritsuena bihurtzen du. Eguraldia oso kon-tuan izateko faktorea da, haizea eta euriaren eraginez lursail asko erraz blaitzen direlako eta ondorioz lokatza oztopo nekagarria bihur daiteke bidearen hainbat zatitan. Ibilbide honen elementu bereizgarriak lur sailen arteko hesi eta harresiak gurutzatzeko eskaile-rak dira. Irlandako lur sail pribatueta ez dago igarotzeko eskubiderik eta ibilbideak zeharkatzen dituen lur sailen artean igarotzeko ohiko pasabiderik ez dagoenean eskailera bat dago jarrita. Sail txikiak dauden zonaldeetan eskailera asko pilatzen dira eta ibilaldiaren erritmoa nahiko moteltzen dute, etengabe gora eta behera ibili behar baita.

Ibilbidearen sorrera 1980. hamarkadan kokatzen da. Mendizale talde batek konderriko bide zaharrak berreskuratu eta horiek konbinatuta ibilbide luze bat egitea pentsatu zuen. Lur sail pribatuak gurutzatzeko baimenak lortu ondoren, langileen bitartez eraikitzeko lanak egin eta 1989. urtean ireki zuten osorik. Ibilbide osoan 200 eskaileratik gora eta 6 zubi jarri behar izan zituzten. Gaur egun Irlandako ibilbide luzeetan erabilienetakoa da eta beste batzuekin batera nazioarteko ibilbideen estandarrak betetzeko lanetan ari dira.



rrian hasiak ziren. *Torc* ur-jauziaren ondotik igaro ginen oraindik jende gutxi zebilen bitartean eta basoan barrena gorantz jo genuen garai batean *Kenmarera* zihoan gurdibidetik. *Torc* eta *Mangerton* mendien artean pasatzean, mendigune erabat berdean murgildu ginen eta pistaz *Crinnagh* ibairaino jaitsi ostean, bidea estutu eta *Esknamucky* ibarrean gora jarraitu genuen landaretza altuko ingurune batean (277 m). Zohikatz edo turban hazten zen landaretza babesteko egurrezko pasabide luzeak zeuden eginak eta ez zegoen bidetik ateratzeko modurik. Jaitsieran, harizti batetik barrena bide txiki batera heldu ginen. Iparraldera jota *Galwayko*

Haranaren amaieran azken baserria inguratu eta lepo batera heldu ginen *Broaghabinna* mendia ezkerrean utzita. Jaitsierak *Caragh river* ibar zabalera eraman gintuen, baina luze jo gabe ostatu bakarti baten ondoan errepidea utzi (90 m) eta *Lack road* izeneko bidetik beste lepo batera igo ginen (380 m). Eskuin aldera *MacGillycuddy's Reeks* mendigunean *Carrauntoohil* mendia zegoen (1038 m), Irlandako altuena. Eguerdia zen eta bertan bazkaldu genuen *Acoose* lakua urrutian ikusten zela. Jaitsiera maldatsu baten ondoren, pista batetik jarraitu genuen eta ibaia gurutzatzean eltxoz jositako gune batetik ahal zen azkarrena pasa behar izan ge-



MAPAS NORDIK

Killarney - Glenbeigh

Zeharkaldia *Killarney* herri turistikoan abiatu eta amaitzen da. Gu abuztuaren hasieran joan ginen Irlandara eta Dublinetik trenez hiru ordutan heldu ginen bertara. Udako oporren garaia izanda, turista ugari zegoen herrian eta erdiguneko kaleetan giro atsegina aurkitu genuen, bertako nahiz atzerriko jendea batetik bestera zebilela.

Lehen egunean *Killarneytik* (50 m) hegoaldera abiatu ginen errepidearen ondoko bigorrian barrena eta *Killarney Parke Nazionaleko* ate ondora heldu ginen. Irlandan eraturako lehen parke nazionala da eta *Muckross* jauregiaren eremuko baso, zelai eta lorategiez gain, inguruko laku eta mendiguneez osatzen dute parkea. Basoan sartu eta euri arina hasi zuen, baina *Leane* lakuaren ondoko haritz, gorosti eta urkien artean jauregiaren aurrera ailegatu ginenerako atertu zuen. Jauregia ondo zaindutako zelai zabalez inguratuta zegoen eta ordurako zaldiz eramandako galdi turistikoan joan-eto-

zubiaren ondotik pasa eta beste baso batetik *Upper lake* lakua inguratu genuen. Lakuaren ertzean atsedeneku turistiko bat zegoela aprobetxatuz, inguruko zelaietan bazkaldu genuen. Hemendik aurrera, errepide lasai batetik *Black Valley* haranean sartu ginen eta etxe sakabanatuen ingurune isolatuan geure ostatua aurkitu genuen (75 m). Ostatuko aitona esan zigun Frantzia hegoaldean izandako opor batzuetan Lapurdiko lurretan ibilia zela eta mendian zegoen denda gune batean egindako erosketez gogoratzen zen...

Bigarren eguna eguzkitsua argitu zen eta giro epelarekin errepidetik mendebalderantz jarraitu genuen *Cummeenduff* aldera. Bide ondoko zelai guztiak harresi eta hesiez banatuta zeuden eta hainbatetan ardiak ikusten ziren. Artalde bakoitzeko ardiak kolore desberdinekin margotuta zeuden eta entretenigarria zen ardi bakoitza zein taldetakoa zen ikustea. Errepidea utzi eta baso batetik barrena *Brassel* mendiaren magaletik jarraitu genuen berriro errepidearekin bat egin arte.

nuen. Trafiko gabeko errepide batetik *Acoose* lakura heldu ginen (155 m) eta etxe isolatuz osatutako ingurune horretan hartu genuen ostatu.

Hurrengo goizean zerua goibel ikusi genuen, baina etxeko nagusiak egun ederra zegoela esan zigun eta han eguraldi onaren definizioa desberdina zela konturatu ginen. Lehen lau kilometroak trafiko gutxiko errepidearen ertzetik egin behar izan genituen *Glencar* ingururaino. *Bealalaw* harrizko zubitxo ederra gurutzatu eta *Caragh* ibaiaren ur lasaien hegitik joan ondoren, basoan sartu eta pista luze batetik *Blackstones* zubiaren bigegurutzera heldu ginen. Hemen berriro errepidearen ondotik beste hiru kilometro egin eta ezkerrean ateratzen zen bide batetik aurrean zegoen mendilerorantz jo genuen. Nabarmen ikusten zen *Windy gap* lepora heldu ginen (328 m) eta bere izenari men eginda, haize zakarrarekin batera euri arina ari zuenez, geratzeko astirik hartu gabe jarraitu genuen beherantz. Aurrean *Glenbeigheko* etxeak zuhaitzen artean ikusten



■ Darrynane badia Caherdaniel inguruan,,

ziren, *Dingle* badiako urei eta *Caragh* ibaia-
ren bokaleko hondar-guneei begira. Badiaren
bestaldera *Dingle* penintsula laino
artearen agertzen zen. Etapa laburrena izanda,
presarik gabe genbiltzan eta jaitsiera lasai
baten ondoren herrira ailegatu ginen. Ostatu
hartu, eta aurreko egunetan ez bezala herri
batean geundela aprobetxatuz, erosketak
egin eta pubean garagardo batzuk hartzeko
akura izan genuen.

Glenbeigh - Caherdaniel

Ondorengo egunean mendebaldera abiatu
ginen errepidearen ondotik *Rossbeigheko*
hondartza bakartiraino eta igoera labur
baten ondoren trenbidea izandako bidetik jar-
raitu genuen. Kosta ondora itzuli ginen eta
pista batetik gorantz *Drung* mendixka ingu-
ratzen genuen bitartean, eskuin aldera Atlan-
tikoa eta zeru grisaren artean, *Dingle*
penintsula agertzen zen lanbroak erdi ezku-
tatuta. Itsasaldeko haize fina albotik izan ge-
nuen igoera osoan. Lepoa gurutzatu (385 m)
eta jaitsiera luze bati ekin genion. Bidean lai-
noak apurka hausten hasi ziren eta eguzkia-
ren epeltasunak lagunduta giro atseginago
batean jarraitu genuen. *Knocknadohar* men-
dia *Cahersiveen* inguruko lautadaren eskuin
aldera altxatzen zen eta urrutian, penintsula-
tik oso gertu, *Valencia* irla. Lautadara heldu
eta oraindik zuzen jarraitu genuen kilometro
batzuetan, tarteka etxe bakanen ondotik pa-
sata, bidegurutzete batean ezkerreara egin arte.
Coomduff mendixka inguratzeko hainbat
soro txiki zeharkatu genituen eta batetik bes-
tera joateko igo eta jaitsi beharreko eskaile-
rak kontagaitzak egin zitzaizkigun. Errepide
txiki batera heldu ginenean ezkerretara jo eta
bertatik beste lau kilometro egin ondoren,
egun horretako ostatura heldu ginen, hu-
rrango eguneko bidetik gertu. Ibilbidea *Ca-
hersiveen* herriraino doa, baina hurrengo
egunean bide zati hori kontrako noranzkoan
errepikatuz behar da eta etapa luzeenetakoa
denez, tarte hori aurreratua izatea erabaki
genuen.

Hurrengo goizean, etxeko andreak bidea
adierazita, lehen urratsak bidetik eta ondo-
rangoak bidez kanpo belardi altu eta zuhaix-
ken artean egin behar izan genituen bide
nagusiarekin bat egin arte, lursail batetik
bestera ohiko hesiak nola edo hala gurutzatu
ondoren. Inguruko lur gehiena zohikatza edo

turba zen eta bidean putzu eta lokatz ugari
topatu genuen. Ordura arte izandako egu-
raldi lehorrak ohiko lokatza saihesten la-
gundu zigun, baina zati hau putzu handiz
beteta zegoen. Hainbat lekutan egur eta bur-
dinazko euskarriak jarrita zeuden laguntza
gisa eta benetan eskertzen ziren oinak lehor
mantentzeko ahaleginean. Goranzko bidea
muinoz muino astiro egin genuen *Knokava-
haun* tontorrera heldu arte. 371 metroekin
ibilaldi guztiko punturik altuena zen. Hego
mendebaldera *Beenduff* tontorra zegoen,
baina gu hegoaldera zegoen *Ballinskellings*
badiarantz abiatu ginen eta zelai batzuetatik
Inny ibarrera jaitsi ginen. *Mastergeethy*
auzoa gurutzatu eta berriro gorantz egin ge-
nuen beste lepo bateraino (200 m). Bestal-
dera *Currane* lakura jaitsiera zegoen, baina
gu hego mendebaldera joan ginen *Coom-
duff* tontorretik hasi eta hainbat gain igoera
itsasora hurbilduz. Zerua iluntzen joan zen
eta haizearekin batera azkenean euria hasi
zen. Azken muinoa igaro eta bidea beherantz
hastea eskertu genuen, gutxienez haizea ba-
retu zelako. *Watervillera* heldu ginenean os-
tatura jo genuen bota bustiak kendu eta
dutxa bero bat hartzeko gogoz. Ostatuan la-
nean ari zen neska euskaldun batekin sola-
sanean aritu ginen. *Watervilleko* hondartza eta
itsaso aurreko pasealekua oso atseginak dira
eta bertan daude *Charles Chaplinen* estatua
eta museoa, hainbat urtetan herria oporre-
tako leku izan zuelako.

Hurrengo etapa zeharkaldiko laburrena
zen eta *Iveragh* penintsulako hegoaldeko
muturra zeharkatu behar genuen. *Currane*
lakua eta itsasoa lotzen dituen kanala zubi
batetik gurutzatu eta etxe sakabanatuen ar-
tetik jarraitu genuen. Urrutian *Skellig* irlak
ikus genitzakeen, non duela zenbait mende
monasterio kristau bat eraiki zuten. Duela
mila urteko *Loher* gotorleku borobilaren on-
dotik igaro ginen eta gorantz jarraituta, *Ball-
inskellings* badia ederra eskuin aldera
ikusten genuen bitartean, *Farranaragh* le-
pora heldu ginen (235 m). Bestaldera *Darry-
nane* badia agertu zen hainbat barku txiki
ainguratuta zeudela eta oporretako etxean
artetik portu txikira jaitsi ginen. Itsasbeherak
hondartza zabala erakusten zuten eta hon-
darretatik *Abbey* irlara joan ginen bertako hile-
rri bitxia ikustera. Hondartzan gurutzatu
genuen jendea, haizeaz babesteko arropare-
kin jantzita zebilen. Bertan bazkaldu eta he-



■ Dronmore castle inguruko basoa

rriranzko bidea hartuta, gaur egun museoa
den *Daniel O'Connellen* jaiotetxearen ondo-
tik pasa ginen, XIX. mendearen hasieran ka-
tolikoen eskubide erlijiosoen aldeko borroka
zuzentzeagatik Irlandako askatzailetzat du-
tana. Kilometro batzuk errepidez eginda *Ca-
herdanielera* heldu ginen eta ostatura
berehala aurkitu genuen. Arratsaldean, he-
rrixkan oporretan zegoen beste jende guz-
tiarekin batera inguruko pub bakarrera joan
ginen garagardoa hartu eta afaltzera.

Caherdaniel - Killarney

Egun berria igoera labur batekin hasi ge-
nuen. Hasierako muinoa gainditzean *Ken-
mareko* itsasadar zabala agertu zitzaigun eta
itsasertzeko eremu berdean etxe sakabana-
tuak bereizten ziren. Belarrez estalitako pista
batetik abiatu eta igoera eta jaitsiera batzuen
ondoren, lautadara jaitsi ginen. Garai batean
Kenmarera joateko bide nagusia zen eta gu-
rinaren bidea deitzen zioten, *Corkeko* por-
tura gurina eramateko erabiltzen zutelako,
ondoren atzerrian saltzeko. Lautadan bideak
erabat zuzen jarraitzen zuten eta zenbait
etxeren ondotik igaro ondoren, berriro pis-
taz *Ardmoreko* gainera igo ginen (194 m).
Jaitsiera kontuz egin genuen lokaztuta zego-
elako eta *Bunnow* ibaia gurutzatu ostean,
azken igoeran *Esknaloughoge* mendiaren
albotik pasa ginen (179 m). Eguzkia maiz
agertzen zen lainoen artetik eta egun atse-
gina izaten ari ginen. Lautada berri bat ge-
nuen aurrean eta jaitsiera labur baten
ondoren, azken kilometroak pista eta asfal-
toa tartekatuta egin genituen *Sneem* herri-
raino. Ostatura kanpo aldera zegoen eta
atsedena hartu ondoren arratsaldean herria
ikustera eta afaltzera atera ginen.

Hurrengo etapa luzeena zen eta 30 kilo-
metro egiteko prest abiatu ginen. Herria ze-
harkatzen zuten ibaia harrizko zubi batetik
gurutzatu ondoren, mendebaldera jo ge-
nuen belardien artetik gorabehera handirik
gabe. Baso batetik jarraitzean, bide ertzean
leio guztiak itxita eta erabat estalita zituen
etxe txiki baten ondotik igaro ginen eta sa-
guzarrak lo egiteko lekua zela ikusi genuen



■ Reagh lakua eta atzean Knocknabreeda tontorra



■ Cummeenduff Glen ibarreko basoan orein gaztea

plaka batean. Basoko azken zatian zingira baten ondotik igaro ginen errepidera heldu arte. Bidea lehen jauregi baten harresien barnetik joaten bazen ere, orain kilometro erdi batez N70 errepidearen bazterretik joan behar izan genuen eta gero pista batetik, bidean *Tahilla* herrixkaren ondotik igarota. Errepidea berriro gurutzatu ondoren, mendiko bide batetik abiatu eta altuera irabaztean, eskuin aldera *Kenmare*ko itsasadarra agertu zitzaigun, eta aurrerago Bearako penintsula ere. Gaina pasa ondoren, jaitsierari ekin genion eta *Blackwater*reko harrizko zubi zahar eta ikusgarrira heldu ginen. Dagoeneko bide erdia egin genuela ikusita, atsedean labor bat hartu genuen bertan. Ondoren, *Kenmare* itsasadarraren ertzetik segitu genuen harizti zabal batetik barrena eta, beti basotik, hainbat pista desberdin jarraitu genituen berriro errepidera aterata arte. Aurrerago, eliza izandako eraikin baten kanpalean bazkaldu genuen eta bideko markak jarraituz, berriro mendialdera abiatu ginen, baina marka hauek alferrikako itzuli handi bat adierazten zuten eta berriro gidako bidearekin bat egin genuenean oso gutxi genuen aurreratua. Dagoeneko arratsaldea aurrera zihoan eta nekea pilatzen ari zitzaigun, baina bidean gora hasi ginen eta *Lacka* muinoaren albotik igarota *Gortamullin* mendixkaren ingurura heldu ginenean, *Kenmare*ra heltzeko oraindik beste ordubete baino gehiago behar genuela ikusi genuen. Errepide txiki batera heldu ginenean furgoneta bat gelditu eta gidariari herrira eramateko eskatu ge-

nion. Ostata aurkitu genuenean gogo handiz du-txatu eta atsedean hartu genuen.

Azken egunean zeru grisarekin jaiki ginen. Klean oraindik jende gutxi zebilela *Kenmare*etik iparraldera abiatu ginen *Killarney*rako bide zaharretik eta herriko azken etxeak atzean utzi ondoren, errepide txiki batetik aldapa gora jarraitu genuen gain bateraino (170 m), gero eta behe laino itxiagoarekin. Jaitsieran giroa argituz joan zen eta, zelaien artean zihoan bide zuzenetik *Gowlane* ingurura heltzean, pista bat hartu eta berriro gorantz hasi ginen. Autobusez bertaratutako talde handi bat genuen aurrean eta igoerako azken zatian lanbro artean murgildurik, beraiekin batera heldu ginen *Peakeen*

Mountain eta *Knockanaguish* mendien arteko lepora (331 m). Giroa nahiko hezea zegoen eta hoztu baino lehen beherantz jarraitu genuen pistatik ibarrean ikusten zen eguraldi argiagorekin bila. Lainoek inguruko mendi guztiak ezkuta-tzen zituzten. *Killarney*ko Parke Nazionalerako eremura heldu ginen eta, pixka bat aurrerago, lehen egunean ibilitako bide zatiarekin bat egin genuen (112 m). Ipar ekialderako noranzkoan harizti batetik gora abiatu ginen, basoa amaitzean egurrezko pasabideetatik *Cromaglan* eta *Stumpacommeen* mendien arteko lepora heldu arte (277 m). *Esknamucky* haranaren ezker aldetik jaitsi ginen amaieran *Crinnagh* ibaiak sortutako ur jauzi eta aintzira txikiraino. Etaparen erdira heldu ginen. Hortik aurrera pista zegoen eta azken igoerari ekin genion oraindik giro goibela lagun. Bide honetan jendearik gurutzatzen hasi ginen eta goiko lepo zabala zeharkatu ondoren *Torc* ur-jauziaren goi aldean agertu ginen. Azken egunetan pilatutako nekea

narabitzen ari ginen eta bertan bazkaldu genuen atsedean hartzeko aprobetxatuz. *Torce*ko ur jauziaren beheko aldean jendez beteta zegoela igaro genuen eta geratu gabe *Muckcross* lakuaren ertzeraino heldu ginen. Hemendik aurrera bidea erabat laua gertzen zitzaigun eta jauregiaren ondotik pasa ondoren, aurrera jarraitu genuen. Bidearen ondoko itxitura batean zegoen zezen talde batek harritu gintuen eta parkeko atea gurutzatu ondoren, errepidearen ondoko bidegorritik *Killarney*ra heldu ginen.

Zeharkaldi osoa burutu genuen. Azken urteetako uda epel eta lehorrena izaten ari zela esan ziguten eta horri esker bidearen egoera aproposa izan zen ia ibilbide osoan. □



Informazio osagarria

Kerry way - etapak

- | | |
|-------------------------------------|------------------------|
| 1. etapa: Killarney – Black Valley: | 24 km. – 310 m. igoera |
| 2. etapa: Black Valley – Glencar: | 20 km. – 500 m. igoera |
| 3. etapa: Glencar – Glenbeigh: | 13 km. – 200 m. igoera |
| 4. etapa: Glenbeigh – Cahersiveen: | 31 km. – 400 m. igoera |
| 5. etapa: Cahersiveen – Waterville: | 33 km. – 760 m. igoera |
| 6. etapa: Waterville – Caherdaniel: | 13 km. – 330 m. igoera |
| 7. etapa: Caherdaniel – Sneem: | 18 km. – 400 m. igoera |
| 8. etapa: Sneem – Kenmare: | 30 km. – 510 m. igoera |
| 9. etapa: Kenmare – Killarney: | 26 km. – 580 m. igoera |

Webguneak:

<http://www.kerryway.com>
<http://kerryway.kerry-ireland.com/>
<http://www.irishtrails.ie/trail/Kerry-Way/19/>

Bibliografia eta mapak

The Kerry Way / Sandra Bardwell. Rucksack Readers argitaletxea
 Ordnance Survey Ireland: 78, 83 eta 84 mapak

Bidaiariak

Ibilbide hau Xabier Erauskinek eta Inma Muñoak burutu zuten 2013ko abuztuan.